

BALEIKE



207. ZENBAKIA. EURO BAT
2012ko OTSAILA

www.baleike.com

USATEGIKO ROCKA

Rocka bizirik dago
Zumaian: hamaika
talde, lokalak eta
estudioa Usategian,
Dardara
elkarte
sortu
berria...



ANDER URBIETA, BARRURA BEGIRAKO BIDAIA



- 0-16 Urte arteko hezkuntza eskaintza eraikuntza bakar batean.
- 0-2 urteko haurren geletan ordutegi malgua.
- Proiektu eta metodologia berritzaileak.
- Tutoretzan konprometituak.
- Zuzendaritza eta irakasle iraunkor eta koordinatua.
- Kalitatezko gestioa (EFQM eredu) eta kudeaketa ekonomiko gardena.



MATRIKULA EPEA
URTARRILAK 30etik OTSAILAK 10era



Axular ibiltokia 6, Zumaia - 943 86 04 62
mariatajose@vedruna.org - www.mariatajose.com



EUSKARA, BESTELA EZ GARA

HITZALDI ZIKLOA ZUMAIAN



Zumalako Udala

Alondegian 19:00etan



OTSAILAK
1
ASTEAZKENA

Euskara eta
estetika

FERMIN
ETXEGOIEN



OTSAILAK
8
ASTEAZKENA

Abertzaleak
eta euskara

JOXE
MANUEL
ODRIOZOLA



OTSAILAK
15
ASTEAZKENA

Norabideari
begiratu
batzuk

JON
SARASUA



OTSAILAK
29
ASTEAZKENA

Eta Zumaian, bagara?

MAHAI-INGURUA

- Belen Uranga
- Josu Waliño

- Jon Maia
- Markel Peñalba



BALEIKE 207

AZALA A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi,

Xabier Azkue, Gurenda Serrano.

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

6

baleike +

ROCKAREN DARDARAK USATEGIAN

4

hitz-tantak

AITOR EIZMENDI

16

kirola

ALEX URANGA

HAWAIIN

19

erretratu

ANDER URBIETA

24

argazkitan

AGUR ZUMAIA

27

puntocom

ZUMAIATIK

PASAIARA

29

agenda

INAUTERIAK

31

bertso xorta

XABIER AZKUE

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udala



Aitor **EIZMENDI** | Ekain sagardo ekologikoaren ekoizlea

“Sagardoarentzat ez da ona txotxean ibiltzea”

Hartu Ibañarrietan Astotxiki bidea, eta segi gorantz. Hantxe dago, tontorrean, Iruretxiki baserria. Ekain sagardoa ekoizten dute bertan, eta udazkenetik aurrera, muztio ekologikoa ere bai. Sagardoa eginagatik, ordea, ez du egungo sagardotegien filosofia bera.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MANTEROLA



Txoootx! Eta edalontzian muztio ekologikoa aterako didazu.

Bai, sagardoaren prozesuan, sagarra prentsatu eta gero muztioa sortzen da. Sagardoaren kasuan upeletara botatzen da, gero irakiteko. Baina muztioa egitea errazagoa da. Jendeari asko gustatzen zaio, alkoholik ez dauka, dietisten gomen-dioetan azaltzen da, osasunerako ona delako. Eskari handia dago.

Sagardoa baino eskari handiagoa al dauka muztioak?

Bai. Sagardoa eskaintzera joan, eta muztioa eskatzen digute; batez ere belar den-detan eta.

Nola doa muztio ekologikoa ekoizteko lana?

Oraindik ez dugu pasteurizatzeko makina erosi. Muztioa atera eta gero, pasteurizatu egin behar da; hau da, temperatura altua eman behar zaio denbora jakin batean bakterioak hiltzeko. Datorren udazkenerako prest edukiko dugu muztioa. Sagar uzta udazkenean jasotzen da, eta behin hori eginda, ez dauka lan handi-



rik muztioa egiteak.

Urola Kostako Landa Garapenaren Alde lan egiten duen Urkome elkarteak sari bat eman berri dizu. Azalduko al duzu zer izan den?

Xabier Azkue lagunak bazuen Urkome sarien berri. Bi urtetik behin egiten dira, eta egitasmo berriak saritzen dituzte. Egitasmo berri bat egin behar genuela esan zidan, niretzat bultzadaxoa izango zelakoan, eta horrela izan zen sariarena. Hautagai batzuk geunden, eta

herritarren botoek erabaki behar zuten zein izango zen irabazlea. Azkenean, gure muztio ekologikoak irabazi zuten. Hauteskunde kanpaina baten antzekoa egin zen Zumaian, eta nik jaso ditut boto gehien [barrezka]. 3.000 euro eman dizkirate, eta pasteurizatzeko makina erosten gastatuko dut.

Muztioarena utzi, eta goazen sagardora, hori dagoeneko ekoizten baituzu. Noiztik ari zara?

Bueno, ba, baserria gurasoek erosi zuten duela 25 bat urte. Berritu eta gero, ez zeukaten garbi zer erabilpen eman. Azkenean, ikusirik nolako belardiak dauden, sagarrondoak jarriko genituela erabaki genuen. Kalitate onekoak ematen ditu lurrak hemen, eta lehen ere bazeudenez, sagarrondotara jo genuen. Orduan, berriak aldatu genituen duela 20 bat urte.

Sagardoarena geroago etorri zen, orduan?

Bai. Sagarrondo mota batzuk daude. Gureek bezalakoek hamar urte behar izaten dute sagarrak emateko, hamar urte horietan ez

genuen ekoizpenik izan, jakina. Gero hasi zen ematen, eta hasiera haietan, sagarra saldu egiten nien sagardotegiei, eta etxerako egiten ere hasi ginen, lagunartean bazkariak eta egiteko sagardoa-rekin. Gero, animatu egin nintzen profesional aritzera, eta nire ametsa gauzatzea izan zen; duela sei urte izan zen hori. Eta horretan segitzen dugu.

Aldaketa handia izan al zen urrats hori ematea?

Handia, bai. 1.000 litro egitetik 30.000 litro egitera pasatu ginen. Ikastaro batzuk egin nituen, eta sagardotegietara buelta zenbait ere egin nuen, ikaste aldera. Oso jator portatu ziren nirekin sagardogileak.

Lekua edo negozioa handitzeko asmorik bai?

Ez, ez. Bertako sagarrarekin era ekologikoan egiten dut lan, eta horretan segituko dut. Ez dut handitu nahi. Kanpokoei afariak eta bazkariak ez dizkiegu ematen. Lagunentzat eta bezeroentzat bakarrik dago aukera, eta beraiek eskatzen didatenean egiten ditugu jatorduak. Bestela, ez dugu



bizitza lasaia da. Baina ni ez naiz oso lasai bizi. Izan ere, lantegi batean egiten dut lan lanaldi erdian, eta egunaren gainerako orduak sagardoaren ekoizpenari ematen dizkiot.

Sagardotegietara joateko garaian gaude bete-betean. Zer gogoeta egiten duzu bertan izaten den giroaz eta beraien ekoizpen prozesuaz?

Ez zait gehiegi gustatzen, baina halakoak ere egon behar du. Ezin da kolpetik aldatu, baina uste dut gizarte osoak saiatu behar dugula ekologikoari gehiago begiratzen.

Joaten al zara Astigarraga inguruko sagardotegietara?

Bai, joaten naiz.

Eta ikusten duzunean jendea edalontzia sagardoz gainezka duela, zer?

Frantsesak eta? [barrezka]. Ez dakite zenbat bete behar den, eta nire ustez txotxarren arduradunek azaldu egin beharko liekete. Kultura falta dela iruditzen zait. Sagardoa gehiago maitatu beharko litzateke. Ezin du izan hirugarren mailako edaria. Txakolina hirugarren mailakoa zen duela hamabost urte, eta orain begira nolako saltoa eman duen. Kalitatearen aldeko apustua egin beharko litzateke kanitatearena baino gehiago. Baina hain erraza da negozioa egitea sagardoarekin... Kamioika sagar kanpotik ekarri, makinaren bidez sagardoa sortu, eta banatzaile ona izatea nahikoa da.

Gertu al dago sagardotegi komertzialetan ekoizpen ekologikoa erabiltzea?

Asko aldatu beharko litzateke gauza. ■

beste sagardotegien antzera lan egiten.

Zergatik filosofia hori?

Sagardoarentzat ez da ona txotxean ibiltzea. Upelak bete behar du, eta jende asko ibiltzen den sagardotegietan zuloa egiten dute upeletan, sagardoa gutxituz joaten delako. Hori ez da ona. Era ekologikoan lan egiten dugunez, guk ezingo genuke upelean geratzen den kantitate hori bota, eta ez dugu botatzen ez dakit zein produktu ez oxidatzeko upela. Garbitik ibiltzen gara.

Orduan, zure negozioaren funtsa botilaratzea da. Nora saltzen gero?

Hainbat lekutara. Baina jendea ere etortzen da etxera sagardoaren bila, eta gehienbat horrela saltzen dugu. Egindako guztia saltzen dugu azkenean, eta pozik.

Iaz, beste urrats bat eman zenuen, Ekain etiketa sortuz. Nondik nora?

2011ko uztailean sortu genuen, eta harrezkero produktu ekologikoen bi

banatzailek darabilte gure etxeko sagardoa batera eta bestera. Beraiek banatzen dute taberna batzuetan, harategiren batean, Zumaiako Sartaian, Zaharren Egoitzan, Parafarmazietan eta abar.

Ekoizpen ekologikoa indarra hartzen ari da orain. Bidea ondo ikusi zenuela ezin ukatu.

Bueno, horretan sinesten dudalako hartu nuen bidea. Beti izan dut sentsibilitate ekologikoa. Ez nintzen hasi negozioa neukalako buruan. Ematen du etorkizuna baduela ekoizpen ekologikoaren bideak, krisi garaian jendeak patrikari gehiago begiratzen dion arren. Gainera, baserriarra lotsatuta egon da baserriarra izateaz, eta horrekin hausteko modu egokia da ekologiararen bidea egitea.

Jendeari entzuten zaio ondorengoa: "Garestiagoa da jaki ekologikoa". Hala al da?

Pixka bat garestiagoa da. Produktu kimikorik ez erabiltzean, ekoizpen kopurua txikiagoa da, eta horregatik da garestiagoa. Gero, lan

“Ematen du ekoizpen ekologikoa etorkizuna duela, krisiagatik jendeak patrikari gehiago begiratzen dion arren”

egiteko modua ere nekezagoa da. Esate baterako, sagar biltzea eskuz egiten dugu guk, eta bertako sagarra bakarrik erabiltzen dugu.

Ekologiararen funtsetako bat garbitasuna da. Zuri entzunda, lasaitasuna oso aparte ez dela konturatu naiz. Zuzen al nabil?

Lasaitasunarena bada ekologiararen oinarrietako bat. Berez, bizitza ekologikoa



TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK:
ARNAITZ RUBIO APREA

ROCKAREN DARDARAK USATEGIAN

Zumaiako rockak bizirik dirau. Dozenatik gora taldek astintzen dituzte gitarrak eta bateriak Ubillos atzealdeko entsegu lokaletan. Urte hasierarekin batera, beste bost gela zabaldu dituzte Usategian. Ez da hau urte berriak ekarri duen albiste bakarra: Zumaiako hainbat rock taldek, bakarlarik eta musikaren inguruan mugitzen diren bakarkakoek bat egin dute elkarte edo kolektibo batean, etorkizun ilunari aurre egiteko. Nahikoa arrazoi badira herriko rockari argazkia ateratzeko.

Garai gogorrek bizi ditugu, oro har, eta horrek ere eragin zuzena du musika munduan. Diskoak apenas saltzen diren urte hauetan, kontzertuak izaten dira rock taldeen helduleku bakarrenetakoa. Talde txikiak, baina, ez dute hainbesteko erraztasunik izaten: kontzertu gutxi ematen dituzte, eta kobratzen dutenean, kobratzen badute, jasotzen duten ordain-saria ez da katxaperoak botatzeko adinakoak. Krisiari aurre egin nahian, eta Zumaiako rock mugimendua indarberritu nahian, Dardara izeneko elkarte edo kolektiboa osatu berri dute taldeek. Elkarreak berak kudeatuko ditu Usategian egin berri diren entsegu lokalak.

Zumaiako rockak bizi duen egoerari buruz hitz egin dugu Got-ham eta Itaka taldeetako Iban Rubio, The Grace of Dionysus taldeko Ion Sarasketa eta Christos Foufonis eta Izu Nauk taldeko Iurgi Taboada eta David Gorritirekin. Emakumezkorik ez da elkarriketa honetan. Dirudienez rocka, Zumaiakoa behintzat, gizonezkoen zerbait da. “Hortaz hitz egin genuen aurreko batean, emakumezkoen talde bat falta dela. Bere garaian izan zen bat Zumaiako. Baina hutsune hau orokorra dela uste dut, ez Zumaiakoa bakarrik. Eta pentsa, ez dago ezer gehiago gustatzen zaidanik emakume bat gitarra elektrikoa jotzen baino!”, dio Ion Sarasketak, barrez hasi aurretik.

Belaunaldi desberdineko taldeak izanik ere, ia denak pasa dira “bunker” bezala ezagutzen dituzten Ubilloseko entsegu lokaletatik. “Orain 12 urte hasi ginenean kanpoan geratu ginen; ez genuen izan sartzeko aukerarik”, du go-goan Iban Rubiok. Gauzak aldatu ziren eta azkenean izan zuten entsegu lokal batean sartzeko aukera, betiere beste talde batzuekin partekatua. “Hasieran hiru talde sartzen ginen lokal bakoitzean eta zerbait ordaindu behar izaten genuen hiru hilean behin. Hezetasunez betetako lokalak ziren; kristo bat eginda zeuden eta azkenean ordaintzeari utzi genion.

Beste taldeek egoera bera pairatu behar izan dute. “Bunkerrak, izatez, penagarriak dira. Hezetasuna izugarria da. Dena herdoiltzen zaizu eta elektronikako tresnak erabili ezean izorratu egiten dira. Eta hori hiru lokaletatik onenean gaudela. Aldameneoan paretak erori egiten dira; pitzaduraz josita daude”, dio Ion Sarasketak. Iritzi berekoa da Iurgi Taboada: “Gitarrak, materiala... diru asko dago hemen goian eta baldintza onenak ez dira hemen gordetzeko. Entseatu eta gero gitarrak etxera eramaten ditugu, han gau batean uzten badituzu, hurrengo egunean herdoilduta agertuko dira eta. Baita gu ere! Hezetasunak gu ere jaten gaitu!”

Dozenatik gora rock talde daude gaur egun Zumaiako eta horietatik gehienek hiru bunkerretan entseatzeko dute. Lokal bera beste talde batzuekin partekatzeak ekarri ote du arazorik bizikidetzan? “Gure artean giro ona dago. Azken finean denok ezagutzen dugu elkar”, erantzun du Iurgik. “Zerbait falta bazaigu, ka-

bleren bat edo, aldamera joan gaitezke eskatzera”, gaineratu du David Gorritik. Iritzi berekoak dira beste musikariak ere, baina nahikoa da pixka bat zirikatzea paradisua ez dela ondorioztatzeko: **(Christos)**: “Bizikidetzeta, bizitzako maila guztietan gertatzen den bezalakoa da. Orokorrean ona da, baina arazoak beti izan dira”. **(Ion)**: “Noizean behin etorri izan da 10-15 laguneko talde bat alboko lokalera. Ez dakigu rock talde batekoak ziren, edo nor ziren. Gainera, ate eta leihoak irekiekin jotzeko ohitura zuten. Soinua lokal batetik bestera filtratzen bada, pentsa leihoak zabalik bazituzten. Al-bokoei bakarrik ez, goian dauden zaharrei ere molestatzen zieten. Batzuetan ezinezkoa izaten zen bertan geratzea”. **(Iban)**: “Beti egongo dira arazoak. Baimenik gabe norbaitek zure materiala erabiltzen duela, zerbait desagertzen dela... Betikoa. Noski, inor ez da erruduna. Elkartea sortu edo ez, beti egongo dira arazo horiek”.

San Juan Egoitza alboan izanda, bertako egoiliarrak ere kontuan hartu behar izan dituzte. Aitona-amonen atsedena eta rockaren erritmoa uztartzea ez da gauza erraza. **(Christos)**: “Behin baino gehiagotan etorri zaizkigu eskatuaz gera-

tzeko, festa bat zutelako. Onartu behar da gaizki pasatzen dutela”. **(Ion)**: “Orain neguan hainbeste ez, baina udan beti kanpoan daude. Ni han goian egongo banintz [egoitzan] ez nuke gustukoa izango behean norbait zarata ateratzen ego-tea. Baina hau da daukaguna”.

Usategiko lokalak zabaltzearekin, egoerak hobera egingo duela pentsatzen dute musikariek. Bost lokal eta estudio bat prestatu dituzte San Juan Egoitza eta Arritokietako ermitaren artean dagoen eraikinean. Hamar dira bertan sartuko diren talde edo bakarlariak, baina lokal bakoitzean. Bunkerrekin alderatuta hobekuntzak nabariak badira ere (“Erabat intsonorizatuta daude eta apenas dagoen hezetasunik”, dio Ibanek), zalantza batzuk ere sortzen zaizkie: **(Iurgi)**: “Uste dut espazioa ahalik eta gehien optimizatzen saiatu direla. Gela batzuek pasilloak gehiago dirudite lokalak baino”. **(Ion)**: “Lokalek forma irregularrak dituzte. Bi lokal ondo daude, zabalak dira, baina beste hirurak oso txikiak dira. Gaur ditugunak baino txikiagoak”. Hala ere, bunkerretan hainbeste ordu pasa dituzten musikariek garbi dute hobera bidean daudela: **(Ion)**: “Lokalak intsonorizatuta daude, hezetasunik ez dute eta berogailua dute. Ikusi nituenean pentsatu nuen gozamina izango dela han jotzea”. **(Iurgi)**: “Lapur-tuko diguten beldur gutxiago dugu. Aurretik pasa izan zaigu, entseatzera joan eta mikrofonoak eta beste zenbait gauza falta zirela norbaitek baimenik eskatu gabe eraman zituelako”. **(David)**: “Bunkerretan gertatu dena da giltza asko banatu direla. Kopia ater-

“Usategia guk kudeatuko dugu elkartearen bitartez”



◀▼ GOT-HAM

Got-ham hirukoteak lehen maketa atera zuen orain pare bat urte eta beste baterako kantak prestatzen ari dira.



▼▶ IZU NAUK

Maketa bat atera ondoren lehen diskoa ari dira grabatzen “kanta biribilagoekin eta material hobekoarekin”.

dituzte eta edozeinek izan du han sartzea”. **(Iurgi)**: “Orain giltza bat emango digute eta gurea izango da. Gainera, Usategia guk kudeatuko dugu elkartearen bitartez”.

Autogestioa bultzatu nahi izan du Udalak erabaki honen bitartez. Hitzarmenak urtebeteko iraungo du hasieran, eta balorazioa egin eta gero erabakiko da harekin jarraitu edo ez. “Bunkerretan ez bezala, lokal berrietan beste era batera funtzionatu behar dugu. Ondo dago zure zerbezak eta lagunak eramatea, baina entseatu behar denean horretara mugatu behar dugu. Orain arteko bilera guztiak horretara bideratu dira. Han sartzen denak baldintza batzuk bete behar ditu. Rocka serio hartu behar da. Hamar urtez egon gara hau eskatzen, eta ezin dugu orain galdu”, dio Ibanek.

Lokal berriak zabaltzeak, musika talde gehiago sortzea ekarriko duela uste du Ion Sarasketak: “Nik uste talde gehiago sortuko direla. Lehen hiru entsegu lokal besterik ez zeuden eta lehertzeaz zeuden. Lekurik ezean, non sartuko ziren talde hauek... Orain talde batzuk gora joango gara eta lokal zeharretan sartzeko aukera gehiago izango da, eta horrek agian jendea animatuko du”.

Hasieran kontrakoa bazirudien ere, musikariek ez dute alokairurik ordainduko Usategia erabiltzeagatik. “Ordainetan kontzertu batzuk emango ditugu urtean zehar”, argitu du Itaka eta Got-hameko baxujoleak.

Bazkideentzat kontzertuak lortu edota antolatzea da sortu berri den elkartearen helburuetako bat. **(Ion)**: “Bakarrik

ZUMAIA SOUND

gitarra bati lotutako herria

Inguruko herrietan (Azpeitia, Zestoa, Zarautz...), estilo desberdinetako taldeak agertu dira (Jotakie, Lin Ton Taun, Delorean...); Zumaia, berriz, gitarra soinu gordinei lotutako herria da. Zergatik ote? **(Ion)**: “Hori hala da.

Gitarrari lotuta egon da beti.

Inoiz ez da atera pop, ska edo

techno talde bat. Beti soinu gogorreko

taldeak izan dira hemen. Punkak bere momentua

izan zuen ez hain aspaldi, baina esan daiteke pixka bat

apaldu dela. Orain beste estilotako taldeak eta bakarlariak

agertzen hasi dira, betiere rockari lotutakoak”. **(Christos)**:

“Horrek saltzen du. Zer entzuten dute gazteek irratan:

gitarra distorsionatua eta erritmo azkarrak oinarri

dituzten talde pila bat. Erreferentzia horiek dituzte. 13

edo 14 urte dituzula horrekin bonbardatzen bazaituzte, ez dago beste erremediorik”.



RAPA NUI

Hamabost talde aritzen dira musika jotzen entsegu lokaletan, hauen artean, Rapa Nui laukotea.



▲▼ THE GRACE OF DIONYSUS

Hirukoteak Bilborock aretoan jo zuten abenduaren 17an, rockaren areto esanguratsuenetakoan.



ORBEGOZO

Hezetasun-kengailua
DH1036
• 10 l / 24 ordu



125€

ORBEGOZO

Hezetasun-kengailua
DH1620
• 16 l / 24 ordu



159€

ORBEGOZO

Zentrifugatzailea
SC4500
• 5 kg



139€

Lehorgailu **FESTA**

EDESA
Lehorgailua

HOLLY SE62
• Ebakuazioa
• Elektronikoa
• 6 kg



249€



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

SIEMENS
Lehorgailua WT46E110

• Kondentsazioa
• Elektronikoa



449€

BALAY
Lehorgailua

3SC74101A
• Kondentsazioa
• 7 kg



649€

A (-%40) Efiakzia energetikoa

BOSCH
WVH 24460EE
• 7 kg garbitu
• 4 kg lehortu

Lehortze funtziodun garbigailua



799€

Jon **BRAKAMONTE**

Dardara Zumaiaiko musika kolektiboko presidentea

“15 talde daude herrian eta horiek guztiak bultzatu nahi ditugu”



2012. urteak Zumaiaiko rockari entsegu lokalak ekarri dizkio opari; baina beste erregalo bat ere izan da. Aurten eratu da herriko musikariak bilduko dituen elkarte berria: Dardara Zumaiaiko musika kolektiboa du izena eta Eusko Jaurlaritzaren oniritzia besterik ez du behar martxan jartzeko. Elkartearen helburuez eta proiektuez aritu gara hizketan bere presidente Jon Brakamontekin.

Zer helbururekin muntatu duzue elkartea?

Helburuak asko dira. Gazteei bultzada eman nahi diegu eta musika egitera animatu, Zumaiaiko taldeen sorkuntza ere bultzatu nahi dugu, bai Zumaia mailan, baita hemendik kanpo ere. Herriko taldeen datu base bat osatzeko asmoa ere bada, informazioa bildu eta beste gaztetxe edo udalei bidaltzeko. Ikusten genuen Zumaiaiko taldeak bakoitza bere aldetik zebilela eta denok bat egitea da garrantzitsua da. Kontzertuak ere antolatu nahi ditugu; tabernetan, Gaztetsuan eta herriko aretoetan neguan, eta kalean uda garaian. Festetan ere parte hartzea izango litzateke gure gogoia, herriko taldeek jaietan jo dezaten. Guztira 15 talde daude eta horiek guztiak bultzatu nahi ditugu.

Usategian lokal berriak eraiki dituzte orain.

Lokal berri hauen kudeaketa emango digu Udalak. Berriaren ideia izan da. Elkartea osatzen duten talde gehienak goiko lokal berrietan egongo dira orain eta neurri horren bitartez hauen inplikazioa ere lortu nahi da. Ez da erraza izango; izan ere, lokaletan dauden talde batzuk ez dira elkarteko kide.

Zumaian 15 rock talde daudela diozu. Horietatik zenbat dira elkarteko kide?

Bat edo bi talde kenduta, beste guztiak daude barruan. Kolokan dauden horiek lokaletan daude, baina elkartean ez.

Zer harrera izan du taldeen artean elkartea osatzearen ideiak?

Nik aspalditik nuen ideia hori. Ubillosen bilera bat egin genuen eta gero herrira zabaldu genuen. Harrera oso ona izan du. Jendea prest dago lan egiteko eta parte hartzeko, eta nik uste onuragarria dela herriko taldeentzat. Gaur egun bizi dugun egoeran zerbait antolatu nahi badugu, batera egonda denontzat hobe izango da.

Negu garaian tabernatan jotzeko helburua dagoela diozu. Kontzertuetarako aretorik ez dagoen herri batean, ondo legoke tabernariak lekuko hori hartzea. Hitz

“Gazteei bultzada eman nahi diegu eta musika egitera animatu”

egin al duzue tabernariekin beraiekin? Zer diote?

Oraindik ez dugu hitz egin, baina badakigu batzuek kontzertuak antolatzen dituztela. Beharrezkoa izango litzateke denekin hitz egitea eta jakitea ea prest dauden taberna barruan saioak antolatzeko edo zerbait eskaintzeko kalean kontzertuak egiten badira. Beste herri batzuetan emandialki antolatzen dituzte. Azkoitian, Zarautzen... Bestalde, herrian badira beste areto batzuk: Aita Mari, Alondegia... Arduradunekin hitz egin beharko da eta ikusi ea horietan kontzertuak ematerik izango genukeen.

Elkartea noiz egongo da martxan?

Estatutuak aurkeztu ditugu Eusko Jaurlaritzan eta hiru hilabeteko epean emango digute erantzuna.

Nork osatzen duzue Zuzendaritza Batzordea?

Gaur egun ni naiz presidentea. Aitor Ramos da presidenteordea, Xabier Garmendia idazkaria eta Beñat Fernandez diruzaina. Lau ordezkari ere baditugu. Dezenteko lana dugu orain elkartea bera muntatzen.

Zer asmo dituzue etorkizun hurbilera begira?

Eskutan proiektu batzuk ditugu. Udan jaialdi bat antolatu nahi dugu herriko taldeekin eta kanpotik ekarritako norbait erakargarriarekin. Lokal berrietan estudioa dugu eta beste proiektu bat izango litzateke talde bakoitzak abesti bat grabatzea eta horiekin disko bat ateratzea.

Hainbeste talde elkarte berean izanda, ez al da inbidiarik sortuko?

Arrisku hori egon daiteke. Lokaletatik hasita kristoren mobida daukagu: talde asko daude, batzuk hasiberriak, eta lokalak ez dira asko. Lokalen gaia ez daukagu erabat lotura: eraikina Udalarena da eta baldintza batzuk jartzen dizkigute; guk, berriz, gure proposamena dugu. Oraingoz ez da uzten lokal berrietan erretzen eta talde batek hiru hilabetean lokala erabiltzen ez badu kanpora joango da. Ikusiko dugu etorkizunean zer legedi ezartzen den.



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569



ALAI BERRI
supermerkatuak

Astelehenerdik igandera 08:00etatik 15:00etara
eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.
Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

ALBERDI
Dj July

Musika onena eskontzetan,
kintoen ospakizunetan eta
era guztietako festetan

600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com




ALGORRITABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ETXEO ZAPATAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxeokozapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408



Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com

OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943 561 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net




Basadi albaitaritzza

Ribaitario
Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.basadiclinicvet.com
www.basadiclinicvet.com

Golez: 11-13 / Arrabatoz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean bita
Lamiakelasko: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzu

BASUSTA
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073

BATELA



ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4 tel. 943 860 750



Ibon **ESTEIBAR**

ROCKA

bizirik dagoen seinale

Bunkerrak egin aurretik, San Pedro barruan egiten ziren entseguak, eta horretan aitzindariak Inazio Tolosa, Imanol Urbietta eta Festatxoko jendea izan zen. Gero etorri ginen gu, Atxantatukoak. Guk ere San Pedro barruan entseatzen genuen, baina zaratatsuak ginelako kanpora bota gintuzten, Ubilloseko atzealdera bidali gintuzten, bunkerrak bezala ezagutzen diren lokaletara. Edo lokala esan beharko, hasiera batean dena bat zen eta. Orduan ez zegoen hiru zatitan banatuta. Baina hasieratik txapuzta hutsa zen. Ez zegoen intsonorizatuta, hezetasuna ikaragarria zen... Lokal horietan lortzen genuen gauza bakarra gure osasuna izorratzea zen, baita goian zeuden zaharrena ere.

Aurrera jarraitu aurretik, errieta txiki bat egin nahi nuke. Udan, hamabostaldi musika egiten zenean, biolinistak eta beste musikariak entseatzera etortzen ziren San Pedrorra. Udan beroa egiten zuen, ez zen entseguak egiteko baldintza onena; izerditan egoten ziren biolina jotzen. Leiho eta ate guztiak irekitzen zituzten, eta kanpoaldetik entzuten ziren haien eskalak. Guk ere kontzertuak ematen genituen, eta gure bunkerrean egoten ginen jotzen, ateak itxita eta zizko eginda. Hala ere, urte haietan jaialdiko zuzendaritza batzordeko kide bat etorri zitzaigun esanaz hamabostaldiak irauten zuen denboran ez azaltzeko, besteak molestatzen genituelako. Nola baloritzen da baten balioa eta bestearena? Rock munduan ibiltzen garenak beti izan gara Zumaian gutxietsiak, eta hori ez dago ondo.

Ikusten dut azkenaldian berriro apogeo txiki bat izan duela rockak Zumaian. Jende asko dabil berriro ere, eta uste dut horrek herriari kristoren bentaja ekartzen diola. Festetan kontzertuak emateko, adibidez. Autokritika txiki bat ere egin behar da, baina: bertako jendea gustura egoteko, ondo entseatzeko, leku horiek baldintza onetan egon behar dute. Bestela jendea azkenean nazkatu egiten da. Leku horiek, lokal horiek, fumadero hutsak bihurtzen badira, azkenean ez da ezer lortuko. Jendeak motibatuta egon behar du eta horretarako beharrezkoa da ematen edo uzten zaien leku horiek egoera onean egotea.

Zerbaiten falta ere sumatzen dut: zuzeneko musika programatzen duten tabernak. Beste nonbaitera joaten bazara, Alemaniara, Irlandara, Ingalaterrara, nonahi ikusten dituzu zuzeneko musika duten pub edo tabernak. Zumaian badira halako kontzertuak hartzeko tamaina duten tabernak, baina ez dago horretarako ohiturarik. Interesa baino gehiago, ohitura falta dela uste dut. Tabernariak ez dira konturatzen rocka gustuko dutenek zenbat kontsumitzen duten. Hastea da kontua. Hasieran bat joango da, gero gehiago eta azkenean mordoa. Denentzat da ona, baita herriarentzat ere. Herria bizirik dagoen seinale izango litzateke.

zaudenean nahiko zaila da kontzertuak lortzea. Elkarteko parte izanda lana hobeto egiteko aukera izango dela uste dut. Jaialdiak antolatzeko aukera dago, eta tabernariekin ere hitz egingo dugu”. **(Iban):** “Zumaiaiko rock giroa guk eraman nahi dugu. Orain arte herriko festetan kanpoko taldeak ekarri dira. Gustatuko litzaziguke [herriari antolatzen diren kontzertuetan] Zumaiaiko talde bat, bi edo gehiago sartzea. Baita txandakatu ere. Azpitik datozen talde txikiak ere izango dute talde handiekin jotzeko aukera, ezagutzera emateko. Gure asmoa da, baita ere, herriko talde denek berdin kobratzea kontzertu hauetan. Bi disko izan, edo maketa bakarra, berdinak izango gara”.

Zumaiaik Gaztetxea duenetik kontzertuak emateko aukera areagotu egin dela diote (“Beraiekin hitz egin eta nahi duzunean lor dezakezu kontzertu bat”, dio Davidek). Orri hauetan bertan, iritzi artikulua batean Ibon Esteibarrek dioenaren antzera, herriko tabernariak zuzeneko musika gehiago bultzako beharko luketela ondorioztatzen dute galdetutakoek: **(Ion):** “Elkartean horri buruz hitz egin dugu. Tabernariak gehiago bultzatu beharko lukete kultura. Demagun, ostiralero kontzertu bat jartzen bada, agian jende gehiago aterako litzateke kalera”. **(Iban):** “Bizpahiru taberna prest daude dagoeneko. Kontzertuei esker gehiago kontsumitzen da. Azkenean denontzat da ona: beraiek guri jotzeko aukera ematen diguten bezala, guk beraiei dirua ematen diogu”. **(David):** “Baina zer tabernak du lekua hori egiteko? Bestalde Zumaiaiko publikoa ez da mugitzen, ez bada zerbait gusztatzen zaiona. Beste herrietan ikusten duzu jendea joaten dela kontzertuetara, nahiz eta gustuko estiloa ez izan. Hemen ez da halakorik gertatzen. Taberna batean heavy metal talde bat sartzea taberna hori hustea da”.

Musikarekiko interes falta dagoela ere sumatzen dute. **(Ion):** “Hori arazo bat da. Deban, adibidez, musikaren kultura handiagoa dago; hemen, berriz, ez zaio hainbesteko garrantzirik ematen. Horren isla da tabernetan entzuten den

BEDUA
ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

Braky's
Okindegia Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

EGOKI

Erlorju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

EKAIN
SAGARDO EKIDLOKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097
ekins@ekins.com www.ekins.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

DIGITAL+

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesma.com
josebasesma14@gmail.com

ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERROTA
OPILOKINDEGIA
SANTIXO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
erota@erota-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak konpontzeko zerbitzu berria

Eskatu surretan konpromisorik gabe.
DOAN

Behoko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIA
Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Urne eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dieta, Naturapaia, Indologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesioentzako, Estresaren, Arduratsuen, Buruko minen, Zirkulazio arazoan... kontrakoak), Akupuntura, hornatzeekin eta hornatzik gabe

BASADI KALEA, 1 - BEHEA - ZUMAIA

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioa tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617

Galdona
burdindegia

Mondano marnela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA
Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

Garoa
kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

musika. Zertxobait aldatu da, baina esan daiteke 14 edo 15 urte nituela entzuten nituen diskoak jartzen direla oraindik”. **(Christos):** “Interes faltaren adibidea da. Zer gustatzen zaio jendeari? Hori? Ba, horixe jarri, eta kitt!” **(Ion):** “Thintza ere itxi zuten. Musika entzuteko hura bezalako tabernarik ez da izan. Kanpotik etorritako jendeak ere hori zioen”. **(David):** “Etxean entzuten duen musika entzun nahi du jendeak tabernetan. Shakira, Rihanna... tabernetan entzuten dutena etxean ere entzuten dute. Eta hortik ez dira ateratzen. Zerbait ezberdina jartzen badiezu, ez dute apreziatzen”.

Hori guztia kontuan hartuta ere, azken urte hauetan Zumaiako rock giroak edo mugimenduak aurrera egin duela uste dute, baina zailtasunekin. **(Iban):** Hasi ginenean nahiko itzalita zegoen. Talde bat edo beste bazegoen, baina ez gaur adina talde. Alde horretako hobekuntza izan da”. **(Christos):** “Eboluzio bat izan du. Ez dakit lokalek zer ikusirik izan duten, baina orain talde gehiago ikusten da”. **(Ion):** “Estilo gehiago ere ari dira ateratzen. Lehen dena modu berekoa zen: talde batek arrakasta izaten bazuen, denak haren antzerakoak ateratzen ziren”. **(Iurgi):** “Orain hobeto dago, baina urteak aurrera joan ahala ikusten duzu gauzak nola diren: zailak, oso zailak. Zuk egiten ez duzuna ez dizu beste inork egingo”. **(David):** “Inork ez du lepoa jokatu zuegatik. Inork ez dizu eskainiko hiru diskoko kontratua, ezta bakarra ateratzekoa ere”.

Diskoak apenas saltzen diren garai honetan, estudioan sartu dira Izu nauk taldeko kideak disko bat grabatzeko (beste bi taldeak ere ari dira kanta berriak prestatzen: Got-hamek beste maketa bat ateratzeko asmoa du; Grace of Dionysusek Internetera igoko ditu abesti berriak). Euskal heavy metala jotzen duen talde honek 2008. urtean atera zuen lehen maketa, *Izu nauk* izenekoa. “Hura maketa bat zen eta orain disko bat ari gara grabatzen, kanta biribilagoekin eta material hobegoarekin. Denbora gehiago izan dugu grabatzeko eta hobeto produzituta dago”, dio Iurgik. Auto-ekoizpena izanik, beren poltsikotik ordainduko dituzte gastuak. Beste bi taldeek orain gutxi plazaratu zituzten beraien lehen maketak: *The grace of Dionysus* 2011n, eta *Got-ham* 2010ean. Denek ere garbi dute disko salmenta handien garaia aspaldi joan zela. **(Ion):** “Inork ez du diskorik erosten. Gure kasuan, maketaren kopiak oparitzen hasi gara”. **(Iban):** “Musikaren mundua nahiko itzalita dago. 200 edo 300 diskotik gora saltzea milagroa da. Oso ona izan behar duzu, edo jendearen gustukoa; bestela, justu-justu zure lagunek erosiko dizute diskoa”. **(Iurgi):** “Gauza da diskoa ateratzeko dirutza bat ordaintzen duzula, eta koadrilako lauzpabosti saldu eta gero, mila kopiarekin geratzen zara etxean. Gure ametsa da diskoa ateratzea; ez dugu aberasteko helburuarekin egin, baina... Diskoa mugitzeko laguntza izatea ondo legoke”.

Internet gero eta zabaldago dagoen aro honetan, talde guztiek dute txokoa Myspace, Facebook eta antzerako lekuetan. **(Ion):** “Azken finean, jendeak musika Interneten entzuten du. Inporta duena jendeak zure musika entzutea da”. **(Iban):** “Zintzilikatzen duzun musika jendeari gustatzen bazaio, primeran. Zorte pixka batekin, kontzertu bat ema-

teko deituko dizue”. **(Ion):** “Arazoa da orain eskaintza asko dagoela eta oso erraza dela lortzen. Ez diozu baliorik ematen; hain erraza da!”. **(Christos):** “Eskaintza eskakizuna baino askoz handiagoa da. Lehen alderantziz zen. Hilabeteak egoten zinen gustuko talde baten disko berria erosteko zain, eta, bitartean, zuk zeuk deskubritu behar zenituen talde berriak. Orain click egin eta denak inbaditzen zaitu”.



“Inporta duena jendeak zure musika entzutea da”

Rock talde gehientsuenen desioa kontzertuak ematea da eta oholtza gainean beraien materiala defendatzea. Kontzertuen panorama ez da, baina, oso itxaropentsua talde txikiengat. **(David):** “Ordainetan zerbeza batzuk ematen dizkizute, afaria...”. **(Iban):** “Hasieran, normala da dirua galtzea, baina pixkanaka gora egiten duzu. Ez duzu asko eskatu, baina behintzat bidaia, afaria, tragoak eta 100-200 euro inguru bai. Gure kasuan, gehienetan konplitu dute”. **(Iurgi):** “Kobratzen hasteko garia ere badela uste dut. Baina zenbat eskatu gaztetxe bati?”.

Etorkizuna nolakoa ikusten duten galdetzean, “beltza” edo “gordina” dira ateratzen zaizkien hitzak. **(Iban):** “Etorkizuna gero eta digitalagoa ikusten dut. Grabazioak gero eta irrealagoak dira, eta gero ezin dira zuzenera eraman. Musikaren etorkizuna zein den? Pixka bat kantatzen duen *tia buena* bat edo *tio cachas* bat jarri, eta seguru arrakasta izango dutela”. **(Iurgi):** “Nik uste orain bezala segituko duela. Jendea ez bada aldatzen, interes gehiago jartzen ez badio, gauzak ez du hobera egingo. A zer kalte egin duen hemen reggaetoiak!” **(Ion):** “Zure taldearen zer ideia duzun da kontuan hartu behar dena. Entseatu eta kontzertu pare bat ematea nahikoa bada, arazorik ez da. Baina zure taldean sinesten baduzu, zerbait lortuko duzula pentsatuz inplikatzeko bazara, hor aurkituko dituzu oztupoak. Gaur egun norberak egin behar du lan guztia”. ■

“HAWAIIN SURF EGITEAK BADU ZERBAIT MISTIKOA”

Hawaiin dago jadanik, Munduko Bodyboard Zirkuituko lehen proban parte hartzeko. Munduko 24 onenen multzoan ariko da lehen aldiz, eta mailari eustea da denboraldirako jarri duen helburua.

Neoprenozko jantzia etxean zintzilikatuta utzi du Alex Urangak, bolada luze baterako. “Bainujantzia eta kamiseta nahikoa ditut Hawaiirako”, dio irribarretsu. Negua atzean utzi eta Ozeano Bareko ur epelak gozatzan ari da jadanik, urtarrilaren 30ean abiatu baitzen surfa erlijio duten irletarantz. Otsailaren 14ra arte du irlez gozatzeko. Gero, lehia hasiko da.

Lau hilabete joan dira Reunion irletan zerua ukitu zuenetik. “Hankak berriro lurrean” dituela dio, baina aitortzen du oraindik oso sarri gozatzan duela handik ekarritako oroitzapenekin. Eta, aurrera begira, asko lagunduko dioten ondorioak atera omen ditu: “Alde batetik, aurten daukadan erronkaren aurrean, sekulako indarra ematen dit Reuniongo garaipenak, erakutsi dudalako onenei irabazteko gai naizela. Ez da gauza bera onenen artera iristea soilik postu onak eginenez edo Gran Slameko proba bat irabazita. Baina, bestalde, ohartu naiz beti onena eman behar duzula; bestela, edonork kanpora zaitzake uretara sartu orduko”. Badaki zertaz ari den, Reuniongoaren ondoren Kanariar Uharteetako proban lehenengoan kanporatu baitzuten. “Orduan kolpea izan zen niretzat, azken bi probak irabazita nindoalako; baina hartatik ere ikasi dut. Lehen egunetik txapelketan erabat kontzentratu-rik egon behar da, beste kontu guztiak alde batera utzita”.

Duela hiru urte nazioarteko probetara jauzi egin zuenetik buruan bueltaka izan duen ametsa gauzatzeko moduan da aurten, ilusioz gainezka: “Behin 24 onenen multzora iritsita, nire nahia da Munduko Zirkuituko zortzi proba nagusiak jokatzeko; gutxienez sei, sei puntuaketa onenak hartzen baitira kontuan azken sailkapenerako. Helburua? Mailari eustea, onenen artean jarraitzea hurrengo urtean, gorenko mailan

sendotzea”. Baina ametsak gauzatzeko, zoritxarrez, dirua ere behar izaten da, eta oraindik ez du urte osorako aurrekontua ziurtatuta. Hala ere, “urratsez urrats” joan nahi du, emaitzek lagunduko diotelakoan. “Oraingoz nire betiko babesleak diru gehiago emango dit; *kortxo* bat ere aterako dute nire izenarekin, eta salmentetako irabazien zati bat niretzat izango da; Aldundiak Kirolgiren bitartez lagunduko dit... Baina nik orain egin behar dudana da nire benetako maila erakutsi, hor goian mantendu, eta bestea etorriko da”.

Estreinatzeko, Hawaii

Top24an debuta egiteko ez dago Hawaii baino leku aproposagorik Alex Urangarentzat: “Hawaiin surf egiteak badu zer bait mistikoa, jende asko erakartzen du. Eta, gainera, oso ikusgarria da. Olatu oso bortitzak daude –bi metrokoak txikienak–, kostatik oso gertu lehertzen dira, jende asko hurbiltzen da ikustera, lehen txapelketa da eta denek nahi izaten dute emaitza ona lortu... Tentsio handia egoten da. Hori da Hawaii. Hawaiikoa da irabaz daitekeen txapelketarik handiena”.

Alexek ezagutzen du Hawaiiko proba, eta ondo egokitzen da hango olatura. “Han lehiazteko aukera izan dut aurreko urteetan eta gustuko olatua da. Ezkerra da, eta hemen nik gehienetan ezkerak egiten ditut surf”. Eta, aurreko urteekin alderatuta, aurten abantaila handi bat izango du: txapelketa ez du lehen kanporaketatik hasi behar. “Hori da Top24ak duen abantaila handiena, koadroaren amaieran sartzen zara lehia, lehen kanporaketak jokatu gabe. Gainera, lehen lana ez da buruz buruko kanporaketa izaten, hiru saioko puntuaketa baizik, eta horrek akatsen bat egiteko tartea uzten dizu”.

Europako Zirkuitua Zumaian

Hawaiikoaren ondoren, zuzenean Australiara bidaiatzea da bere asmoa, bigarren proba han jokatuko baita. Ondoren, Txile, Brasil, Mexiko, Portugal, Puerto Rico, Kanariar Uharteak... Eta tartean, Zumaia: “Urrirako Europako Zirkuituko proba bat antolatu nahi dugu Zumaian. Jadanik Europako Federazioaren oniritzia daukagu eta orain aurrekontua osatu nahian gabilta. Zumaian bodyboardak indar handia du eta uste dugu merezi duela horrelako proba bat antolatzea”. Alex bera Zumaian izango da probarako: “Egutegian ikusi genuen urrian bazegoela tarte bat eta ha-laxe erabaki genuen”. ■



ZORTZI PROBA NAGUSIEN EGUTEGIA (GSS)

HAWAII (Banzai Pipeline, Oahu)
otsailak 14-26

AUSTRALIA (The Box, Margaret River)
martxoak 26-apirilak 4

TXILE (Arica)
maiatzak 18-27

Brasil (Itacoaitiara)
ekainak 7-16

MEXIKO (Puerto Desconocido)
abuztuak 1-11

PORTUGAL (Sintra)
abuztuak 25-irailak 2

PUERTO RICO (Isabella)
azaroak 2-13

KANARIAR UHARTEAK
(Fronton, Kanaria Handia)
abenduak 1-16



GOIKO TABERNA
Erribera, 9 tel. 943 861 391


Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

Cure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiá
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatuzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

del CAPI

Ibaigain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, behea
tel. 943 862 651
faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotatuak...

Itzurun Zuhaitzbidia, 2 behea
Tel. / Fax: 943 86 15 66

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basod, auzategia, 10 tel. 943 861 853

ORRAZTEGI
ZUMAI



943 862 083

Kala

Pintxoak eta otartekoak



Txomin Agirre kala, 8

KABI Pasaia Eteazarreta, 15
943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320



kalari

Upela plaza, 6
tel. 943 862 517

KANTAURI
TABERNA



Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatxoak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840

Ander Urbietak lana zuen. Lantegi bateko enkargatua zen. Dirua irabazten zuen. Auto berri baten jabe egin zen. Baina ez zen zoriontsua. Zoriontasunaren bila abiatu zen, bere barruari entzunez, eta bidaia fisikoari eta emozionalari ekin zion Eskozian eta Indian barrena. 2010ean hasi zuen bidaia hura aberasgarria izan zaio, eta beste bizimodu bat dauka orain.

TESTUA: AITOR MANTEROLA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Ander Urbietta
Masajista

BARRURA BEGIRAKO BIDAIARIA

Gizakiak askotan egiten dio galdera hau bere buruari: zer da zoriontasuna? Norberaren araberakoa izan ohi da erantzuna. Zoriontasunik ez dagoela ere erantzuten da. Ander Urbietak galdera hori zerabilen buruan aspaldian. Eta erantzuna aurkitzeko biderei ekin zion, barruak agintzen zionari entzunez. Bidaia bati ekin zion, fisikoa eta emozionala aldi berean. Bidaiaren kronologia 2006an hasten da, eta iaizko uztailaren erdialdera amaitzen. Bukaera hura beste bizimodu baten hasiera da orain.

2006an, Azkoitiko enpresa batean hasi zen lanean: “Xeitek du izena, eta hainbat lan egin nuen. Soldadore, montadore... Denborarekin enkargatu izatera ere heldu nintzen. Bi urtez jardun nuen arduraren horretan”. Lanak dirua ekarri zion, diruak auto berria, baina auto berriak, diruak eta lanak ez zuten zoriontasu egiten: “Beti berdina zen, errutinak erre egiten ninduen. Errobotatuta bilakatu nintzen, eta pentsatzeari uzten diozu, eta momentu horretan garbi neukan pertsona bezala ez nintzela ari garatzen”. Bere buruari

galderak egiten hasi zen: “Bizitza guztian horrela geratu behar al dut? Lanean hasi eta kotxea erosi nuen, eta bale: orain zer? Etxea erosi, bestea erosi? Ez ninduen betetzen, ez zitzaidan gustatzen”. Eta galderari erantzunak aurkitzea erabaki zuen duela bi urte, barrenak esaten zionari jarraituz, eta barrenak hauxe esaten zion: “Egon behar du poztasuna ematen duen beste zerbait”.

Beste zerbait horren bila abiatu zen, baina ez zen hutsetik hasi. Barruan bazuen zaletasun bat, eta horretan oinarrituz hasi zuen bidaia fisikoa eta emozionala: “Ingelesa gustukoa nuela garbi neukan, eta Eskoziara joan nintzen 2010eko hasieran”. Erabaki zuzena izan zen, han hasi baitzen sentitzen aurkitu nahi izan duen hori: “Askatasuna sentitu nuen. Berriz hastea bezalakoa izan zen”. Baina gogorra izan zen abiatzea. Delirium Tremens taldearen ‘Bogaboga’ kanta dioen bezala joan zen, ‘senideak, neska eta lagunak lehorrean utzita’, eta momentu hura gogoan, biziki eskertu nahi dio Eneritz neskalagu-

“Prest nengoen karrera bat ikasteko, baina beteko ninduen zerbait izan behar zuen”

nari ulertu izana bere erabakia: “Ezingo diot inoiz eskertu urtebeterako kanpora noala esan eta berak ulertzea. Behar nuena zela ulertu zuen”.

Hasiera hartan, hortaz, sentimendu kontrajarriak bizi izan zituen Edinburgon, Eskoziako hiriburuan: batetik, askatasuna; eta, bestetik, bere maiteen hutsunea. Baina bidaiaren bide orria garbi zeukan, eta ez zuen atzera egin. Lehen hilabetea ingelesa ikasten igaro zuen eskola batean, eta familia batekin bizi izan zen bi hilabetez. Batera hartu behar ziren eskola eta familia. “Lehen hilabetean, zerbait lotua nahi nuen, hemen horrela ohituta gaudelako, ziurtasuna ematen diguten gauzetara lotuta bizi gara..., eta ingelesa ikasteko erraztasuna ematen zidanez, horrela joan zen lehen hilabete hura”. Baina barruak ez zion agintzen lotuta segitzea. Oso garbi zeukan hori. Bazekin hasierako hura ezinbesteko zerbait zela. Tarte hura igaro ondoren, gauzak bere erara egiten hasi zen: “Eskubaloiko talde batean jokatzen hasi nintzen, hemen jokaturakoa bainintzen. Egin nuen gauzarik onena izan zen, lagun berriak ezagutzeko aukera ederra izan zelako”. Bizitzera etxe batera joan zen, alokairuan.

Alokairua ordaintzeko hemen irabazitako dirua zeukan, baina, hala ere, etxe berrira joan zenean, lanari ekin zion: “Platerak garbitzen aritu nintzen jatetxe batzuetan, eta etxeak garbitzen ere bai. Errutina zen hura ere, baina beste erronka batzuk neuzkan, hemen ez nituenak: ingelesa ikastea, adibidez, eta egunero ingelesez ikastea”. Hilabetez lan egin eta gero, lanik ez egitea erabaki zuen: “Eskubaloari heldu nion buru-belarri. Nire asmoa ez zen dirua egitea, dirua egiteko hemen nuen aukera eta ez nintzen Eskoziara joango. Nik neure burua

▼ **MUNDUAN ZEHAR**

Errutinatik ihes egin nahian, eta bidaia fisikoa eta emozionala egiteko gogoarekin, munduan zehar bidaiatzeari ekin zion. Lehen eskala Eskozian egin zuen.



aurkitu nahi nuen”. Eta bide horretan, bere buruari inoiz egin ez zizkion galderak egiten hasi zen: “Zer izan nahi dut? Prest nengoen karrera bat ikasteko, baina beteko ninduen zerbait izan behar zuen”. Halako erabakiek hemen sortuko zuten zeresana gaintututa zeukan: “Berdin zitzaidan jendeak zer esango zidan. Beldur horiek kenduta neuzkan”. Beldurrak. Horra, Urbietaren ustean, berak hartu zuen erabakia bezalakoa hartzeko gaintutu behar den aurreneko sentimendua: “Horixe da lehenengo urratsa, beldurrei gaina hartzea, eta nik gaintutua neuzkan. Hortik aurrerakoa erraza izan zen”. Eta erraztasun horretan sentitu zuen askatasuna: “Han bakarrik zaudenean, nola edo hala egiten duzu aurrera. Askatasun hori asko estimatu nuen. Hemen, nire karga mentala izango zen, baina ez neukan”.

Berriz ere lantegira

Bederatzi hilabetez egon zen Eskozian, 2010eko iraila arte. Zortzi hilabete hiriburuan igaro zituen: “Oso leku lasaia da hiria izan arren, eta lasai ibiltzeko espazio asko dauzka”. Baina denbora guttia ez zuen hirian sartuta igaro: “Herrialdea ezagutzeko aukera ez nuen alferrik galdu, urte batzuk lehenago bertan egon banintzen ere”. Lagunak ere joan zitzaizkion bisitan hemendik hara, eta Eneritz neskalaguna ere bai: “Portugalen ari zen ikasten, eta Eskoziara joaten zen. Ni ere bai Portugaleira, bisitan”.

Eskoziako azkeneko hilabetea hiriburutik urrun igaro zuen: “Baserri batean aritu nintzen morroi, aitona-amonak batzuekin. Sukaldeko lanak egiten nizkien, eta baratzean ere aritzen nintzen. Egunean hiruzpalau orduko lana izaten nuen”. Beste zeregin batzuk egiteko baliatu zuen denbora: “Etxekoan bidez, mendi taldeko irteerara joaten nintzen. Eta denbora asko nuenenez libre, asko irakurtzen nuen, eta neure buruarekin egoteko baliatu nuen bake hura”.

Ordurako erabakita zuen gero zer egin behar zuen, baina bideak bere bidea zuen, eta pausoz pauso joan behar zuen. Urratsa urratsari kateatze horretan, etxera bueltatzea zegoen. 2010eko

irailean itzuli zen. Oso gogotsu, baina kezka harra barrutik erabat desagertu gabe: “Aldaketa handia izan nuen neure barruan Eskozian. Banekien pausohori eman behar nuela beldurrak kentzeko, eta on egin zidan. Zoriontsu izan nahi nuen, egunerokotasunean bizi nahi nuen, garbi neukan. Oso garbi neukan zoriontasuna edukiko ez nuen aukerarik ez nuela hartuko. Indarberrituta itzuli nintzen, gogotsu. Beldurra ere banuen, hemengoak jango ez ote ninduen, eta jendearen galderak erantzun beharra... Multzotik ateratzen bazara, arraroa zara, baina norberak onartzen duen momentutik ez dago kezkarik”.

Itzuli zen, hortaz, eta diru gutxiarekin itzuli ere. Bere bidean barrena bidaiatzen segitzeko dirua behar zuen, eta ondo baino hobeto ikusi zuen Eskoziara joan aurretik dirua non egoten den hemen: “Lehenengo lantegira deitu nuen, Azkoitiko hartara, eta aukera eman zidaten bueltatzeko”. Berriz ere errutina? “Nire hurrengo asmoak gauzatzeko dirua behar nuen. Banekien zer zen nire asmoa: hemen lau hilabete pasatu eta

Indiara joan masajea, yoga, meditazioa ikastera...”. Horra barreneko asmoa, horra barruak agintzen ziona. Baina kezka hau zuen: “Hemen ingelesa galduko nuela banekien, eta Indian ingelesa behar nuen. Hortaz, berriz joan nintzen Eskoziara, beste baserri batera. 2011ko otsailean itzuli nintzen Eskoziara, 2 hilabeterako. Aurrekoan baino lan gehiago egin nuen, etxea aldatzen ari ziren eta... Hilabete egin nuen han, eta gero beste hilabete egin nuen lehengo baserrian; asko maite ditut aitona-amonak haiek, beraiek ni ere bai, eta polita izan zen berriz han izatea”.

Indiara

Eskoziako bi hilabeteak joan ziren, eta bidaiaren hurrengo geltokia India izango zuen. Iazko apirilean joan zen. Masajeak emateko ikastaroa egitera abiatu zen Hyderabad hirira: “Hiri handia da, zortzi bat milioi lagun bizi dira, eta kaotikoa da. Eskoziako baserri batetik joan nintzen, eta pentsa zer nolako aldaketa izan zen niretzat”. Ikastaroak bi hilabete irautesen, “baina luzatu egin zen, In-



▲ ESKOZIATIK INDIARA

Eskoziakon baserri batean egotetik, Indiara joan zen. Masajeak emateko ikastaroa egitera abiatu zen bertara.



Kresala
Taberna
Julio Beobide 3, tel. 943 019 869



kuttur
lentzeria
erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatetxea • taberna
oilasko erreka • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizak
hanburgesak
bokatak...

marina
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
solarium
ileapaindegia
estetika
etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

- ✓ Eguneko menua.
- ✓ Asteburuetan txotx, sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54
OIKIA
tel.: 943147891

muniosoro
Taberna - Jateketa

Nikol Enea



TABERNA
Amaiako plaza



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea
Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna
ogitartekoak
pintxoak
Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK
Etengabelko garabi zerbitzua
Hego kalea, B3 (Estazioan) 20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com
Itziar induriguenea, C 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com
638 887 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

"Muagi"
errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia
RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 631



ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.
Era guztietako berrikuntza eta igeltsotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...
Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK
Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea
Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



dian gauzak lasai egiten dituzte eta". Ondorioz, luzatu egin behar izan zuen Asiako herrialdeko egonaldia: "Lau hilabetez egon nintzen azkenean".

Ikastaroa gainditzeko azterketak arazorik gabe menderatu zituen, baina ikasitakoa Europan balagarria izateko beste azterketa batzuk egin behar zituen. Azterketa horiek uste baino geroago egin behar izan zituen, eta horregatik egon zen denbora gehiagoz Indian. Alokairuan egon zen, herrialde hartako zazpi lagunekin batera, eta sekulako esperientzia izan zela dio: "Egunero hitz egiten genuen, asko hitz egiten zidaten, lurrean eserita jaten genuen... Kulturaliki oso aberasgarria izan zen". Horregatik, oso garbi dauka berriz itzuliko dela: "Jendarekin txundituta geratu nintzen. Berriz joango naiz Indiara".

Azterketaren zain zegoen bitartean, proposamen bat jaso zuen: "Irakasle bategomendatu zidan meditazioa egiteko". Eta egin, egin zuen: "Lehendik ere banuen harra sartuta, eta animatu egin nintzen". Honela egin zuen meditazioa: "Bipasna izeneko hamar eguneko ikastaroa egin nuen. Ezin da inorekin hitz egin, hamar ordu egunero meditatzen egon behar duzu. 04:00etan jaikitzen nintzen, eta 22:00etan bukatzen nuen. Egun osoa isilik. Hamar egun isilik. Hor ateratzen dira barruan gordeta daukazun denak, barruan zer daukazun konturatzen zara. Oso aberasgarria izan da meditazioa, gauzak lasaiago hartzen lagundu dit, denerako on egin dit. Meditazioak asko lagundu zidan. Hiri hartatik halako lasaitasunera joatea sekulakoa izan zen. Hasieran gaizki pasatu nuen, lehen lau egunak oso gogorak izan ziren, negar eta negar..., dena ateratzen duzu horrela".

Gero, azterketak egin zituen, baita ondo egin ere. Europan balekoa zen, hartara, Indiako masaje ikastaroa.

Ettxera, eta egitasmo berria

2011ko uztailaren itzuli zen Indiatik, eta hemen dago harrezkero. Oraingoan, ordea, ez da Azkoitiko lantegira itzuli: "Etxekook txokoa daukagu Zumbilo kalean, eta jendeari masajea emateko prestatu dut. Horixe dut orain lanbidea". Jakitun da hasiberria dela, eta asko duela ikasteko: "Indian ikasitakoa ondo egiten dut, baina konturatzen zara adar asko dauzkala, eta ikasteko asko dago. Motibatu egiten nau horrek aurrera egiteko; tailerlean ez neukan hori. Orain masajea ematen dut, eta meditazioa eta yoga ikasteko gogoia daukat". Emandako urratsak asko lagunduko diola dio: "Garapen pertsonalerako lagunduko dit, ez daukat zalantzarik". Lanbidea du, baina ez du helburutzat dirua irabaztea: "Hemengo lau faktorei aurre egiteko adina ateratzen badut, konforme nago. Gehiago ez dut nahi. Dirua irabazi nahiko banu, lantegian geratuko nintzen. Ez naiz Indiara joan diru bila, zoriontasuna aurkitzera baizik".

Ilusio handia dauka orain, eta "barrura begira ari" dela dio: "Ilusioa edukitzeak asko balio du, eta ilusioaren gainez ez dago krisirik eta ez ezer". Buelta eman dio lehen zeukan bizimoduari, eta halako erabakiek ingurukoie ere eragiten die: "Etxekoan pentsatzeko modua aldatu dut nire erabakiekin. Kolpe txiki bat eman diet beraien pentsamolde tradizionalari, gauzak beste modu batera ikusten dituzte orain. Baina hasieran dena zen galdera eta kezka. Dena nekala esaten zidaten, baina dena hori materiala zen erabat, eta nik barru-barruan

sentituko nuen zerbait nahi nuen".

Askotan aipatu du bere barrua, eta barruan dugunari entzuteari garrantzia handia eman dio:

"Norberak bere barruari begiratu behar dio, ez besteek esaten dutenari. Min gehiena ingurukoen iritziek ematen dute, baina aurrera egin behar da". Berak egin du, eta oso garbi dauka "probatu egin behar" dela: "Hemendik 30 urtera neure buruari esatea 'egin izan banu'... ez nioke neure buruari inoiz barkatuko. Porrota ez da izango hau gaizki ateratzen bada, porrota zen ez probatzea, lehengoan segitzea". Orain zorientsu dela dio: "Ni gustura bizi naiz. Ilusioz nago. Ondo ateratzen bada, ederki; eta bestela ere ederki".

Ibilbide honetan guztian, bere burua ezagutzeko aukera izan du: "Barruan zer dudan ondo dakit, eta zer behar dudan ere bai. Jendeari esango nioke lau egunerako gaudela hemen... Gertatzen da beste era batera hezi gaituztela, dena segurua izan behar duen ustean, bikotea, etxea, lana..., eta hemen segurua ez dago ezer, hiltzea kenduta". Horregatik, aholku hau ematen du: "Norberak eman behar du pausoa. Ireki egin behar da".

Irekitze horretan, gertakari zitatek ere bultzatzen dute, eta Urbietak 'terapia shock' deitzen die halakoei. Berak ere nozitu zuen halakoa: "Gure kasuan, koadrilako bat hil zen istripuz, eta barruan zerbait aldatu zitzaidan: 'begira bizitza zein motza den, eta nik ez dut segituko orain arteko bidetik'. Gogorra da 'terapia shock' horretara iritsi beharra halako erabakiak hartzeko... Ez egon halakoen zain!". Barrura begirako bidaiariaren aholkua. Bidaiarik ederrena? Urbietak baietz erantzungo du. ■



Agur Zumaia

Espainiako Gerra Zibilak gure herrian utzitako gertaera lazgarrienetako baten 75. urteurrena beteko da otsailaren 13an: 256 zumaia herritik kanporatuak izan zirenekoa. Senideak Errepublikaren aldeko bandoan edo ihes eginda zituzten zumaia erritik bidaltzeko agindua eman zuten boterea indarrez hartu zuten agintariek.

1937ko otsailaren 13an eta 14an aterarazi zituzten Zumaiaetik. Gehienak emakumeak ziren, seme-alabekin. Herritik irteterakoan *Agur Jesusen Ama* abestu zioten Arritokietako Ama Birjinari. Zaharrek eta haurrek autobusez egin zuten bidaia, eta gainerakoek kamioitan. Zumaiaiko erreketek zituzten zaindari, eta Deba, Mutriku eta Ondarroa igaro ondoren, Saltsuarango gainean utzi zituzten. Handik aurrera, pare bat kilometro egin zituzten oinez, txarrantxa eta lubaki artean, gerrako frontearen bestaldera iristeko.

Kortezubiko bainu-etxera eraman zituzten eta, behin handik, senide edo lagun en etxeetara sakabanatu ziren pixkanaka. Hala ere, indar faxistek Gernika bonbardatu zutenean (1937ko apirilaren 26an), artean Kortezubiko bainu-etxean zeuden batzuk.





OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirotak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Korta Induslariak, A1 - 4, pab. 20750 Zumaiak (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoxia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolazal@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



La Primavera
pizzeria

Alta Mari, 17, beheha
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



RUBIO
Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 beheha

talaxia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



TALAI-PE
jatetxea-erretgia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kudillak)
Salxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheha Tel. 943 573 905

TXORTENA
JATETXEA

Eguneko menua, Asteburukoak,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazueltak, Errazioak

Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA



Txingurri
loradenda

Loradenda erribera, 1
tel. 943 861 180

Lorazaintza
tel. 943 860 778
655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Eraikitzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo, tarima eta pertsiak
*Armairu enpeltatuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



Xanti
ALTZARIAK S.L.

Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amaia plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekook
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



◀ Zumaatik Pasaiara

'Grampian Don' itsasontziak Zumaatik Pasaiara egindako bidaiaren bideoa ikus dezakezue baleike.com webgunean.



I. Txakurkrosa

Pedro Etxeberriak eta Zurak irabazi dute Zumaiaiko I. txakurkrosa. Webean daukazue informazio guztia.



Entrenatzailea sarean

Joseba Sesma prestatzaile fisikoak bloga sortu du gure komunitatean.

Espilla gogoan

Pulpok Iñaki Espillari egindako omenaldiaren bideoa ikus dezakezue baleike.com-en.



Pintxoa + edaria

1,50€

pintxo-potea

Edariak: Kriantza, txuria, gorria, zurittoa, ura eta muztioa.

1. denboraldia: urtarrilaren 26tik martxoaren 29ra.
2. denboraldia: maiatzaren 3tik uztailaren 19ra.
3. denboraldia: irailaren 20tik azaroaren 29ra.

Ostegunetan 18:00etatik aurrera



zumartian

300 €-ko
Zumartian txekeak irabazi

pintxo-potearekin



zumartian

**Bete gure pintxo-pote kartoia eta zozketan sartu!
Eskatu barran**

OTSAILA INAUTERIAK

ERAKUSKETAK

Otsailaren 15etik 29ra "Emakume ingeniari eta asmatzaileak".

Martxoaren 2tik 18ra Arantza

Jauregi, pintura erakusketa.

Martxoaren 20etik apirilaren 1era: Valentin Manterola.

DEIALDIK

Otsailean "EUSKARA, BESTELA EZ GARA" izenburupean, hitzaldi zikloa. Asteazkenetan 19:00etan Alondegian.

Otsailaren 17tik 20ra INAUTERIAK: Musika Eskolako en jaialdia, mozorro lehiaketak, etab. (Ikusi egitaraua).

"EMAKUMEA ETA OSASUNA"

Hitzaldi zikloa, otsaileko ostegunetan 18:30ean, Alondegian (otsailaren 2, 9, 16 eta 23an).

Otsailaren 25 eta 26an: Zumaiko Merkataritza Elkarteak antolatuta, neguko OUTLETa.

OTSAILA

Ostirala, 3

22:30ean Alondegian, kafe-kontzertua "Andoaingo konboa".

Larunbata, 4

18:30ean Beheko Plaza abesbatzarekin "Santa Ageda Bezpera".

Asteazkena, 8

19:00etan Alondegian, "EUSKARA, BESTELA EZ GARA" zikloan hitzaldia: Joxe Manuel Odriozola "Abertzaletasuna eta euskara".

Osteguna, 9

22:00etan zine forum: "El hombre de al lado".

Ostirala, 10

19:30ean Forondan, GUNEK antolatuta: Otoitz-meditazio ekumenikoa.

22:00etan Torreberri, ARGIA PROIEKZIOAK: "Lucio".

Asteazkena, 15

19:00etan Alondegian, "EUSKARA; BESTELA EZ GARA" zikloan hitzaldia: Jon Sarasua "Norabideari begiratu batzuk".

Osteguna, 23

22:00etan zine forum: "Another Year".

Ostirala, 24

19:30ean Forondan, GUNEK antolatuta, Solasaldia: RAFAEL CRISTOBAL (Gaztelerez).

22:00etan Aita Marin, antzerkia, TXALO taldearen "Hil arte bizi".

Larunbata, 25

9:30ean Afizionatu mailako Zumaiko IV. Txirindulari saria.

11:00etan ZUHAITZ EGUNA.

15:00etan Zumaiko XXVII. Herri Lasterketa. (Haurrak 15:00etan eta nagusiak 16:00etan).

16:30ean Neguko piraguismoko Gipuzkoako Txapelketa.

Igandea, 26

12:00etan komentuan, Musika Bandaren Inauteri kontzertua

Astearte, 28

17:30ean haur liburutegian, Ipuin kontaketa.

Asteazkena, 29

19:00etan Alondegian, "EUSKARA, BESTELA EZ GARA" zikloan mahai-ingurua "Eta Zumaian, bagara?".



INAUTERIAK

Otsailak 17, Ostirala

Egurdian Beheko Plaza Abesbatzaren kalejira. Arratsaldean, herriko Ikastetxeetako haurren Inauteri festa: kalejira herrigunean zehar eta amaiera Beheko plazan.

18:30ean Musika Eskolaren Inauteritako Kalejira Ludotekako haurrekin batera: "MAMU FESTA" herriko ume eta heldu guztiak gonbidaturik!

Otsailak 18, Larunbata

12:00etan IRAUNKORRAK Txarangaren kalejira herriko kaleetan zehar 17:30ean Beheko plazan, INAUTERI MOZORRO FESTA 18:30ean herriko kaleetan zehar kalejira IRAUNKORRAK

txarangarekin 22:30etik 1:00etara Kofradian Diskoteka Mozorrotoa Mozorro Lehiaketak Larunbatean bi lehiaketa ospatuko ditugu:

HAUR LEHIAKETA: Arratsaldeko 18:00etan. Lau sari emango dira: 0-8 urte bitarteko banakako eta taldeei bana, eta 8-16 urte bitarteko banakako eta taldeei beste hainbeste..

HELDU ETA GAZTEEN LEHIAKETA: 19:30 ean. Hiru sari emango dira: - Banakako edo bikote onenari-100 euroko saria - Taldeak: onenari 300 euroko saria / bigarrenari 150 eurotako.

Izen ematea, 11:00etatik 12:00etara Alondegian, edo 17:00etan plaza bertan - Lehiaketarako Musika berezi bat eskatu nahi bada izenematean ekarriko da.

Otsailak 19, Igandea 14:00etan Beheko Plaza Elkartearen Bazkideentzat Inauteri Bazkaria Jarraian, elkarte bertan Mozorro Lehiaketa 17:00etan Aita Mari antzokian, haur zinema: VIKY Bikingoa????

Otsailak 20, astelehena

15:00etan eta 17:30ean Maria eta Jose aretoan, PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS pailazoaren ikuskizuna: "ZAZPIKOLOROA" 18:00etan Ludotekan Inauteri festa eta merendola 9-12 urte bitarteko haurrentzat.

Maitatu Uranga

Oinetako eta erropak konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumaiak • 943 861 252 • 652 727 740

Zumaia Hotela

Jateketa Kalejotegia

Alai auzategia, 20750 Zumaiak tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

José Rey Alfaro Gerente

ZUMAIAMOTOR, S.L.

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiamotor@telefonica.net

ZUMAIK AUTO-ESKOLA

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - beheka • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIK

Zumaia optika

Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

TXALAPARTA OPARIK

Angelin Sorana, 2
20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa. 943 430 657

Euskara, bestela ez gara

Doinua: "Aitorren hizkuntz zaharra"



1.

Egunez egun nonahi goxo-goxo jardun guk geuk egiten dugu Zumaia euskaldun Ez gara konturatzen zer altxor daukagun euskara galdu ez dadin zabaldu dezagun

2.

Nahiz jendeak ikusi salbatuta jada etengabe behar du guztion bultzada eta hortaz ohartzen ez baldin bagara museoko hizkuntza izango da euskara

3.

Erdaraz egitea delako itxura batzuen iturria seko lehortu da jarria digu prestu euskarak eskura bizirik jarraitzeko behar dugun ura.

4.

Euskararen herrian milaka biztanle okerreko bidetik dabilzan seinale nahiz eta sentimenduz izan abertzale askok egiten dio euskarari kale

5.

Elkarturik hiztunon komunitatea euskarak guztiontzat dauka estalpea aurrerantzean ez da izango kaltea gogoz irekitzea etxeko atea

6.

Murritzten ari zaigu hizkuntzen atlasa txikiak irautea ez baita erraza herri euskaldunetan harturik arnasa jendez bete dezagun euskararen plaza



- Eskola publikoa eta euskalduna
- Talde txikiak: elkarreragina eta kooperazioa era naturalean
- Adin aniztasuna geletan
- Irakasle eta gurasoen arteko harreman estua ...



Arroako herri eskola
Auzoan hazi eta hezi



OSO LASAI ETA EUSKARAZ BLAI
Matrikula zaitetz!
urtarrilaren 30etik otsailaren 10era



OIKIAKO ESKOLA

OIKIAKO HERRI ESKOLA

2tik 12 urte arte
auzoan ikasteko aukera



- Talde txikiak (banakako heziketa)
- Ingelera 4 urtetik aurrera
- Bertsolaritza Proiektua
- Teknologia berrien erabilera: **ESKOLA 2.0**
Bloga: <http://oikiakoeskola.blogspot.com>
- Psikomotrizitate gela
- Ingelera, Heziketa Fisikoa, Musika eta Heziketa Bereziko irakaslego espezializatua.
- Jangela zerbitzua



AURREMATRIKULA EPEA:
urtarrilaren 30tik otsailaren 10era

Tel-faxa: 943 862 046 E-mail: 012299aa@hezkuntza.net



ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

**ZUMAIAKO
INSTITUTUA**



M A T R I K U L A

urtarrilaren 30tik otsailaren 10ra

- ✓ Haur Hezkuntza
 - ✓ Lehen Hezkuntza
- 2 urtetik 12 urte arte

ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

Aita Mari, 44,
Sagarbidea, 1
tel. 943 86 10 37; faxa: 943 86 25 01
e-posta: 012972aa@hezkuntza.net

- ✓ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- ✓ Z.I.G. / A.A.T.
(Zereginen Ikaskuntzen gela)

- ✓ Batxilergoak
 - Giza eta Gizarte Zientziak
 - Zientzia eta Teknologia

- ✓ Heziketa Zikloa
 - Administrarritza eta Finantzak
(Goi Mailakoa)

INSTALAZIOAK:

- Elbarrituentzat egokituak
- Psikomotrizitate gela
- Liburutegiak
- Laborategiak
- Irratia
- Informatika Gelak
- Teknologia tailerrak
- Gimnasioa / Frontoia

ATE IREKIAK
otsailak **4**

ZERBITZUAK - EKINTZAK:

- Jantokia
- Garraioa
- HOBETUZ ikastaroak
- SARBIDEAK
- Leonardo / Erasmus

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK:

- Kirola
- Mekanografia
- Zaintza Zerbitzua (7:30-9:00)
- Hezkuntza psikomotrizitatea
- Aldizkaria
- PROA (Errefortzu programa arratsaldez)

ZUMAIAKO INSTITUTUA

Aita Mari auzategia, 45
Sagarbidea, 1
tel. 943 86 08 09 / 943 86 23 20
faxes: 943 86 08 10
posta-e: zumaiabhi@gmail.com

